

## XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA  
OSASUN SAILA

### 1109

*21/2015 DEKRETUA, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzkoa.*

Hondakin sanitarioen kudeaketa abenduaren 24ko 313/1996 Dekretuaren bitartez arautu zen lehenengo aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan. Martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuak ordezkatu zuen aurreko arau hori. 2002ko dekretuaren berrikuntza nagusia izan zen hondakin sanitario gutxi sortzen zituzten zentroen kudeaketa-baldintzak ere arautu zituela, ez baitzituzten lehenago kontuan hartu.

Azken urteotako eskarmentuak beharrezko egiten du gaur egun indarrean dagoen 76/2002 Dekretua ordezteko, eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea onartu izanak are premiazkoago egiten du aldaketa; izan ere, lege horren 29. artikulua beste araubide edo erregimen bat jarri du lehenago zegoen baimen-araubidearen ordezkari: dena delako jarduerari ekin baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duen ingurumen-organoari jakinarazpena edo komunikazioa helarazi beharra.

Erregulazio berri honek, baimen-araudia aldatzeaz gain, hondakin sanitarioen bereizketa edo segregazioa azpimarratzen du, batik bat.

Kontuan hartuta arauak osasun-arloko eskumenei nahiz ingurumen-arloko eragiten diela, lan-kidetzarako eta koordinaziorako mekanismoak ere jasotzen ditu, gai horietan eskumena duten organo guztiek –bi sailetakoei– beren eginkizunak erraz bete ditzaten.

Testuak 5 kapitulu ditu. Lehenbizikoan, dekretuaren xedea zehaztu eta haren edukia nahiz norainokoa argitzeko zenbait definizio emateaz gain, hondakin sanitarioen sailkapena ezartzen da, hiru multzotan banatuta: hondakin sanitario ez-espezifikoa, hondakin sanitario espezifikoa, eta hondakin sanitario ez-biologikoa nahiz halakoak dituzten nahasteak. Garrantzi handiko sailkapena da hau, hondakinak zuzen bereiz edo segregatu daitezten.

II. eta III. kapituluak hondakin sanitarioen kudeaketari buruzkoak dira: zentro barneko kudeaketari eta zentroz kanpoko kudeaketari buruzkoak, hurrenez hurren. Ondoren, IV. kapituluak jardueraren antolaketa jasotzen du, argi eta garbi zehaztuz zer betebeharrak dituzten hondakinak sortzen dituztenek nahiz hondakinak kudeatzen dituztenek, eta zer eskumen dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko organoei. Azkenik, V. kapitulan dago jasota zehapen-araubidea, iturburu hauek baititu: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen IV. titulua; Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen V. tituluko II. kapituluak, eta Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen VII. tituluko II. kapituluak.

Dekretu honek, beraz, arau hauek garatzen ditu: alde batetik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 3. artikulua, zeinaren arabera osasun-arloko administrazioari baitagokio osasun publikoa babestuta dagoela bermatzea, prebentziorako eta osasuna sustatzeko neurrien bidez; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, hondakinen alorreko politikaren oinarritzko ildoak jasotzen baititu.

Hori guztia kontuan hartuta, Osasuneko sailburuaren eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, eta Gobernu Kontseiluak, 2015eko martxoaren 3an, egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da: Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak sortzearekin eta kudeatzearekin lotutako esparrua arautzea, osasun publikoa eta ingurumena babeste aldera.

##### 2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen aplikazioari dagokionez, hitz hauek definizio hau dute:

a) Hondakin: edozein substantzia edo objektu, edukitzaileak botatzen duena, edo botatzeko asmoa edo betebeharra duena.

b) Hondakin sanitarioak: Europako Hondakinen Zerrendako 18. epigrafean egon eta Dekretu honen 3. artikuluko kategoriaren batean sartuta dauden hondakinak. Europako Hondakinen Zerrenda otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez onartu zen (BOE, 43. zk., 2002ko otsailaren 19koa).

c) Hondakin sanitarioen ekoizle: Dekretu honen 3. artikuluan jasotako hondakin-motaren bat ekoizten duen pertsona fisiko edo juridiko oro (hasierako hondakin-ekoizlea), edo horrelako hondakinen izaera edo konposizioa aldatzea dakarren edozein lan (aurretratamendua, nahasketa...) egiten duena.

d) Hondakin sanitarioen kudeaketa. Hondakin sanitarioei zer ezaugarri dituzten kontuan hartuz tratamendu egokiena ematera bideratutako eragiketen multzoa. Hauek dira eragiketa horiek: batetik, hondakinak manipulatzeko, sailkatzea, biltzea, egokitzea, biltegiatzea, garraiatzea, eta balorizatze edo deuseztatze tratamenduak egitea, eta, bestetik, agente- eta negoziatzaile-jarduerak.

e) Zentro barruko kudeaketa. Hondakinen kudeaketarako lanen artean, hondakinak ekoizten dituzten zerbitzu eta zentroen barruan egiten direnak.

f) Zentroz kanpoko kudeaketa. Hondakinen kudeaketarako lanen artean, hondakinak ekoizten dituzten zerbitzu eta zentroetatik kanpo egiten direnak; oro har, hondakinak biltzen direnetik aurrerako guztiak, tartean direla kanpoko bilketa, garraioa, balorizatze edo deuseztatze tratamenduak, eta agente- eta negoziatzaile-jarduerak.

g) Hondakin sanitarioen kudeatzaile. Aurreko paragrafoan aipatutako zentroz kanpoko kudeaketa-lanak egiten dituen pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatu oro (baimen edo jakinarazpen bidez erregistratua), eta hondakin sanitarioak ekoizten dituzten zentro edo zerbitzuetan balorizatze edo deuseztatze tratamenduak egiten dituenak.

h) Hondakin sanitarioen autokudeatzaile. Berak –eta soilik berak– ekoiztutako hondakin sanitarioak balorizatze edo deuseztatze tratamenduak egiten dituen ekoizlea.

i) Desinfekzio. Zernahi gai, objektu, material edo produktutan, hondakin izan ala ez, mikroorganismo patogenoak suntsitzeko prozesua.

j) Esterilizazio. Zernahi gai, objektu, material edo produktutan, hondakin izan ala ez, mikroorganismo guztiak suntsitzeko prozesua.

k) Hondakinak biltegitratze: hondakinak jaso eta zentro ekoizlearen lokaletan gordetzeko ekin-tza. Honelakoa izan daiteke:

1.– Tarteko biltegitratzea: denbora-tarte laburrerako egiten dena, 24 ordu baino gutxiagorako; egin ere, lokal batzuetan, hondakinak kudeatzera bidali aurretiko biltegitara eraman baino lehen jasotzeko.

2.– Kudeaketa baino lehenagoko biltegitratzea: lokal batzuetan egiten da, eta horietatik jasoko eta garraiatuko dira hondakinak, bai zentroz kanpo kudeatzeko, bai ekoizten diren zentroan edo zerbitzuan bertan tratatzeko.

l) Zentro barruan biltegitratzeko gehieneko aldi: hondakina ontzian uzten dutenetik jaso eta garraiatzen duten artekoa; jaso eta garraiatu ere, bai zentroz kanpo kudeatzeko, bai ekoizten diren zentroan edo zerbitzuan bertan tratatzeko.

3. artikulua.– Hondakin sanitarioen sailkapena.

Hondakin sanitarioak ondorengo multzo hauetan sailkatzen dira:

1.– I. multzoa. Hondakin sanitario ez-espezifikokoak.

Behin bakarrik erabiltzeko materialak dira, hala nola osasun-langileek erabilitako arropa, eskularru eta maskarak, odolez, jariakinez edo iraizkinez zikindutako sendaketa-materiala, gernua duten edo izan duten ontziak, drainatze-ontzi hustuak, odola edo bestelako likido biologikoak biltzeko erabilitako poltsa hutsak, dialisi-iragazkiak, hodixkak, igeltsuak, eta, oro har, likido biologikoak xurgatu dituen edo horrelakoekin zikinduta dagoen beste edozein hondakin, baldin eta II. edo III. multzoko hondakin-motaren bat ez bada.

Aurrekoez gain, II. multzoko hondakinak ere multzo honetakotzat hartuko dira Dekretu honen 14. artikuluan jasotakoari jarraiki autoklabe bidez tratatuak izan ondoren edo 16. artikuluan jasotakoa betez beste tratamendu baimenduren bat jaso eta gero.

2.– II. multzoa. Hondakin sanitario espezifikokoak.

Infekzioak eragiteko arriskua dakartelako edota arrisku-susmoa edo arrisku psikoemotionala eragiten dutelako, kudeaketaren etapa guztietan bereiz kudeatu beharreko hondakinak dira multzo honetakoak.

Multzo honen barruan hondakin-mota hauek sartzen dira:

a) Hondakin infekziosoak; hots, Dekretu honetako I. eranskinean zerrendatutako gaixotasun infekziosoren bat duten pazienteengandik datozela-eta, gaixotasun horiek kutsatzeko gai izan daitezkeenak.

Salbuespen gisa, eta zentro ekoizleak hala baderitzo, infekziosoak izan daitezkeelako zalantza sortzen duten bestelako hondakin batzuk ere sartu ahalko dira multzo honetan (desagerrarazitzat jotako gaixotasunak, kanpotik ekarriak, gaixotasun berriak edo oso birulentoak).

b) Agente biologikoen kultiboak eta erreserbak, baldin eta gizakiei nahiz animaliei gaixotasunik eragiteko modukoak badira, eta haiekin kontaktuan egondako material botagarria, fluxu edo korrante laminarreko kanpaitako eraginkortasun handiko iragazkiak barne.

c) Agente bizi motelduak dituzten txertoak eta haien bialak.

d) Anatomia-hondakinak, baldin eta beren tamainagatik ez badira sartzen indarrean dagoen hilotzen alderdi sanitarioei buruzko erregelamenduaren aplikazio-eremuan (202/2004 Dekretua, urriaren 19koa).

e) Hondakin zorrotz edo ziztakariak, hala nola bisturiak, orratz hipodermikoak, suturarako orratzak, kapilarrak, portak, estalkiak eta agente patogenoei sartzeko bidea ireki diezaiekeen beste edozein hondakin.

f) Odola eta hemoderibatuak, pleura-likidoa, peritoneo-likidoa eta beste edozein fluido biologiko (gernua izan ezik), baldin eta ontzitan jasota 100 ml-tik gorako kantitatea badira, edo hondakin horien laginak, guztira, 100 ml-tik gorako kantitatea badira, eta betiere 2 a) eta 2 g) motako hondakin infekziosoak ez badira edo saneamendu-sistema orokorraren bidez deuseztatzeak ez badira.

g) Animalia infekziosoetatik datozen hondakinak edo Dekretu honetako I. eranskinean zerrendatutako patologiak eragiten dituzten agente infekziosoak inokulatu zaizkien animalietatik datozenak, gorpuak, anatomia-hondakinak eta haien estabulaziotik sortutako hondakinak, baldin eta patologia horiek kutsatzeko gai izan daitezkeela uste bada eta ez badira sartzen giza kontsumorako ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei buruzko araudiaren aplikazio-eremuan.

3.– III. multzoa. Hondakin sanitario ez-biologikoak, eta horrelakoak dituzten nahasteak.

Multzo honen barruan hondakin-mota hauek sartzen dira:

a) Medikamentu zitotoxikoen eta zitostatikoen hondakinak, eta botika horiek prestatzeko erabilitako edo horiekin kontaktuan egondako material guztia, fluxu edo korrante laminarreko kanpaitako eraginkortasun handiko iragazkiak barne.

b) Epigrafe honetako beste atal batzuetan zehaztutakoez bestelako botika baztertuak.

c) Hondakin sanitarioak, kontserbatzearen formoletan edo beste gai kimikoren batean sartutako anatomia-hondakinen nahastea badira.

d) Beste edozein hondakin, baldin eta, osasun-arloko jardun profesionalerako beharrezkoa izanik, artikulua honetan zehaztutako II. eta III. multzoetako hondakinak erabiliz egindako nahastearen emaitza bada.

4. artikulua.– Kanpoan geratzen direnak.

Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Hondakin erradioaktiboak, Energia nuklearrari buruzko apirilaren 29ko 25/1964 Legeak eta hura garatzeko arauak erregulatzen baitituzte.

b) Behar besteko munta duten giza hondakin edo gorpuzkiak, hilotzen alderdi sanitarioei buruzko erregelamenduaren bitartez arautuko baitira (202/2004 Dekretua, urriaren 19koa).

c) Dekretu honen 3.artikulan jaso gabeko beste edozein hondakin, ekoizleak sortua berau, jarduera sanitarioen karakteristikoa izan edo ez, hala nola erradiologian erabilitako likido erre-

belatzaileak eta finkatzaileak, anatomia patologikoan erabilitako formola, alkoholak eta xilenoak, erabiltzen ez diren transformadoreak, instalazioen mantentze-lanetan eta abarretan erabilitako olioak, eta, oro har, laborategiko produktuen hondakinak eta haien ontziak.

Idatzi-zati honetako hondakinei dagokienez (c idatzi-zatiaz ari gara), arlo horri buruzko araudi sektorialean hondakin-sortzaileei ezarritako betebeharrak bete behar dira.

## II. KAPITULUA

### ZENTRO BARRUKO KUDEAKETA

#### 5. artikulua.– Baldintza orokorrak.

1.– Hondakin sanitarioak zentro barruan kudeatzeko etapa guztietan, irizpide hauei jarraituko zaie: gutxitzea, asepsia, kalterik ez egitea eta egoki bereiztea.

2.– Hondakin sanitarioak jatorrian sailkatu eta bereizi behar dira, eta bilketa horretarako erabiltzeko diren ontziek honelakoak izan behar dute: behin bakarrik erabiltzekoak, zama handia eusteko modukoak, opakoak eta hermetikoki ixtekoak (poltsak eta ontzi erdi zurrunak izan ezik, uestekabeen ez irekitzeko moduan itxiko baitira). Hondakinak bukaeran erraustu egin behar badira, hondakin-ontziak erabat suntsitzeko moduko materialezkoak izango dira, eta gainera, erretzean isuri toxikorik batere ez sortzeko modukoak edo ahalik gutxien sortzekoak izango dira.

3.– II. eta III. multzoetako hondakinak biltegitratzean, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Hondakinak dituzten ontzien tarteko biltegitratzea hondakinen ekoizpen-lekuetatik gertu dauden lokaletan egingo da. Baimendutako pertsonak baino ez dira sartuko lokal horietara.

b) Hondakin sanitarioak kudeatzera bidali aurretik biltegitratzeko lokalek aireztapen-sistema egokia izan behar dute, eta baimendutako pertsonak baino ez dira sartuko lokal horietara.

c) Biltegitetako paramentuak erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira, eta higiene-egoera egokian edukiko dira. Hondakin likidoak biltegitratzeko lekuek euste-sistemek izango dituzte, ontziak hautsi edo isurketarik gertatuko balitz ere.

d) Biltegitirik ezean, armairutan edo antzeko sistemen bidez biltegitratu ahalko dira hondakinak, baina behar bezala seinaleztatuta egon behar dute beti, eta jendeak ez irekitzeko moduan. Betiere, aurreko puntuko baldintzak beteta.

e) Hondakinak beste produktu eta material batzuekin batera ere gorde ahalko dira, baldin eta produktu eta material horien, lokalaren eta erabiltzaileen segurtasun- eta higiene-baldintzak bermatuta badaude.

f) Poltsatan jasotako hondakinei dagokienez, edukiontziak eduki behar dira, bai bitarteko biltegitratzea egiteko, bai hondakinak kudeatzera bidali aurretiko biltegitetara eramateko. Edukiontzi horiek, behin bakarrik erabiltzekoak ez badira, egituraz zurrunak eta erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira, eta higiene-egoera egokian edukiko dira.

g) Hondakin sanitarioak tarteko biltegitetatik kudeatzera bidali aurretiko biltegitetara eramateari dagokionez, zentroak ezarriko du zenbatean behin egingo den, eta horretarako, bi alderdi hauek izango ditu kontuan: zenbat hondakin ekoizten den, eta zentroan hondakinak biltegitratzeko zenbaterainoko lekua dagoen. Edonola ere, garraio hori gutxienez 24 orduan behin egin beharko da.

Osasun-arloko agintaritzak, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, zentroak proposatu-tako maiztasunaz bestelako bat exijitu ahalko du.

Hondakinak bitarteko biltegietatik kudeatzera bidali aurretiko biltegietara eramateko, artikuluko honetako 3.6 atalean aipatutako edukiontziak erabili behar dira, eta garraio hori beti egingo da zentroak berak zehaztutako zirkuituetan zehar eta jende gutxien dabilenean.

4.– Guztiz debekatuta dago II. eta III. multzoetako hondakin sanitarioak aterpez kanpo uztea.

6. artikulua.– Hondakin sanitario ez-espezifikoen kudeaketa: I. multzoa.

Hondakin sanitario ez-espezifikoak, merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak diren aldetik, udal-ordenantzetan ezarritakoa betez kudeatuko dira.

7. artikulua.– Hondakin sanitario espezifikoen kudeaketa. II. multzoa.

1.– Ontziak.

a) II. multzoko hondakinak poltsatan edo ontzi zurrun edo erdi zurrunetan utzi behar dira, eta horiek 5. artikuluko 2. puntuan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Hondakin zorrotzak eta zitzakariak uzteko, ontzi zurrun, zulaezin eta iragazgaitzak erabili behar dira.

b) II. multzoko hondakinak poltsatan jaso zero, poltsa gorriak erabiliko dira.

2.– Etiketak.

a) II. multzoko hondakinen bilketarako ontziak eta poltsa-euskarriak, baita biltegitratzeko erabili edukiontziak ere, hala badagokio, honela etiketatuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauak, Hondakinei buruzkoak —beste zuzentzarau batzuk ere derogatu ditu—, III. eranskinean jasotako arrisku-ezaugarrien arabera.

b) Creutzfeldt-Jakoben gaixotasuna edo prioiek eragindako beste gaixotasunen bat tarteko dela sortutako hondakin infekziosoetan, etiketak garbi eta erraz ikusteko moduan adierazi behar du hondakin horiei dagokien azken tratamendua errausketa dela.

3.– Gehienezko biltegitratze-epea (zentro barruan).

a) Biltegitratze-mota honen gehienezko epea ez da 6 hilabete baino gehiago izango hondakin sanitario hauentzat: II c) multzokoak, agente bizi motelduak dituzten txertoak eta haien bialak, eta II e) multzokoak, zorrotzak edo zitzakariak.

b) II. multzoko gainerako hondakin sanitarioak gehienez ere astebetetz eduki ahalko dira honela biltegitratuta. Biltegitratzea hilabeteraino luzatu ahalko da hozte-mekanismoak edukiz gero, behar bezala seinaleztatuak, eta tenperatura 4° C-tik beherakoa izango dela bermatuta.

c) Osasun-arloko agintaritzak, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, zentro barruan hondakinak biltegitratuta edukitzeko gehienezko epe horiek murriztu ahalko ditu, biltegitratutako hondakinen ezaugarriengatik edo kantitateagatik beharrezko baderitzo.

4.– Balorizatzeko edo deuseztatzeko tratamendua.

a) II. multzoko hondakinei balorizatzeko edo deuseztatzeko tratamendurik egin nahi izanez gero hondakin sanitarioak ekoizten dituzten zentroen barruan, eragiketa horiek nahitaez beteko dituzte bai zentroz kanpoko kudeaketari dagokionez 9. eta 11. artikuluetan ezarritako baldintza orokorrak, bai 12., 13. eta 14. artikuluetan jasotako berariazko baldintzak.

b) Zentro ekoizleen barruan egindako tratamendu-jarduerak Dekretu honen 17. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den baimena eskuratzearen mende jarriko dira.

8. artikulua.– Hondakin sanitario ez-biologikoen eta horrelakoak dituzten nahasteen kudeaketa. III. multzoa.

#### 1.– Ontziak.

a) III. multzoko hondakinak ontzi zurrunetan utzi behar dira, eta ontzi horiek 5. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Iraungitako botikak poltsetan edo ontzi erdi zurrunetan ere utzi ahalko dira, baina orduan, iragazgaitzak izan beharko dute, likidoak edukitzeko erabiltzen badira.

b) III.d motako hondakinak (nahasteak diren gainerako hondakinak, alegia) ontzi egokitan utzi behar dira, eta egokitasun horretarako, hondakina zer egoeratan dagoen eta zer arrisku-mota dakarren hartuko dira kontuan.

#### 2.– Etiketak.

Ontziak, baita horiek biltegitratzeko erabili edukiontzia ere, hala badagokio, honela etiketatuko dira: Europako Parlamentuaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskinean jasotako eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauak, Hondakinei buruzkoak –beste zuzentzari batzuk ere derogatu ditu–, III. eranskinean jasotako arrisku-ezaugarrien arabera.

b) Botika zitotoxikoen eta zitostatikoen hondakinetan, bai eta horiekin kutsatutako materialetan ere (III.a) multzokoetan, alegia), honela adieraziko da arriskuaren nondik norakoa: *zitotoxikotasuna* adierazteko piktogramaren bidez (Dekretu honetako III. eranskinean ageri da).

c) Botika baztertuetan (III.b) multzokoetan, alegia), etiketan berariaz adieraziko da horien arriskua zertan den, *H0* kodearen bidez.

d) Hondakin sanitarioak, kontserbatzearen formoletan edo beste gai kimikoren batean sartutako anatomia-hondakinen nahastea badira (III.c) multzokoak, alegia), honela etiketatuko dira: 7.2 eta 8.2.1. artikuluetan, bietan, jasotakoak betez. Beraz, produktu kimikoak zer arrisku-mota dakartzan adierazteaz gain, II. multzoko hondakin guztiak bezala hondakin infekziosoak (H9) direla ere adieraziko da.

e) 3.3 artikuluko III.d) multzoko beste hondakin batzuetan ere, II. eta III. multzoetako hondakinak erabiliz egindako nahasteetan alegia, etiketan berariaz adierazi behar da nahaste hori osatzen duten hondakinek zer arrisku dakarten.

#### 3.– Gehienezko biltegitratze-epea (zentro barruan).

a) 6 hilabete, hondakin zitotoxiko eta zitostatikoak badira (III.a) multzokoak).

b) Urtebete, botika baztertuen hondakinak badira, aurreko idatzi-zatikoez bestelakoak (III.b) multzokoak).

c) 6 hilabete, kontserbatzearen formoletan edo beste gai kimikoren batean sartutako anatomia-hondakinak badira (III.c) multzokoak).

d) Beste edozein nahaste-hondakinetarako (3.3 artikuluko III.d multzokoetarako, alegia), ingurumen-osasunean eskumena duen osasun-agintaritzak erabakiko du biltegitratzeko gehienezko epea, kontuan hartuta nahastearen osagaiak eta haien arriskua. Epe hori inoiz ez da izango 6 hilabete baino gehiago.

e) Ingurumen-osasunean eskumena duen osasun-agintaritzak, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, hondakinak zentro barruan biltegitratuta edukitzeko gehienezko epe horiek murriztu ahalko ditu, biltegitratutako hondakinen ezaugarriengatik edo kantitateagatik beharrezko baderitzo.

4.– Balorizatzeko edo deuseztatzeko tratamendua.

a) III.multzoko hondakinei balorizatzeko edo deuseztatzeko tratamendurik egin nahi izanez gero ekoizpen-tokietan, eragiketa horiek nahitaez bete behar dituzte zentroz kanpoko kudeaketari dagokionez 9. eta 15. artikuluetan ezarritako baldintzak. Bestalde, hondakin horiei dagokien tratamendua errausketa bada, 13. artikuluan ezarritakoa ere bete beharko dute.

b) Ekoizpen-tokietan egindako tratamendu-jarduerak Dekretu honen 17. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den baimena eskuratzearen mende jarriko dira.

### III. KAPITULUA

#### ZENTROZ KANPOKO KUDEAKETA

9. artikulua.– Baldintza orokorrak.

1.– Zentroz kanpoko kudeaketa-eragiketetan, inoiz ez da kutsadura edo ingurumen-hondamena eramango beste ingurune hartzaile batera.

2.– Hondakinak jasotzeaz eta garraiatzeaz arduratzen diren langileek, ahal den neurrian, ez dituzte hondakin-poltsa edo -ontzi horiek manipulatu, eta, horretarako, bilketa-sistema mekanizatuak ezar daitezzen sustatuko da, eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia beteko.

3.– Hondakin sanitarioak garraiatzean, estankotasuna, segurtasuna eta higiena bermatzeko moduko bitartekoak erabiliko dira beti, bai zamalanak egitean, bai garraioan bertan, eta bestalde, salgaien garraioari buruzko araudi aplikagarria beteko da.

4. Hondakin sanitarioak balorizatzeko eta deuseztatzeko tratamenduak egitean, osasun publikoa eta ingurumena babestuta daudela bermatuko da une oro, eta irizpide hauei jarraituko zaie: osasungarritasuna, kalterik ez egitea eta segurtasuna.

10. artikulua.– Hondakin sanitario ez-espezifikoen kudeaketa. I. multzoa.

I. multzoko hondakin sanitarioen zentroz kanpoko bilketan eta garraioan, udal-ordenantzek merkataritza-hondakin ez-arriskutsuei buruz ezarritakoa beteko da.

Era berean, hondakin horiek balorizatzeko eta deuseztatzeko tratamenduak baldintza hauek beteko ditu: Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ezarritakoak.

11. artikulua.– Hondakin sanitario espezifikoen kudeaketa. II. multzoa.

1.– Garraiatzea.

II. multzoko hondakinen zentroz kanpoko bilketari eta garraioari dagokionez, hauek bete beharko dira: otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuak ezarritakoak, gai arriskutsuak errepidez garraiatzeko eragiketak arautu baititu. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira beti:

a) Ibilgailuak iragazgaitzak izango dira, erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak, ez dute trinkotze-sistematik izango, eta material xurgatzailez hornituta egongo dira, ustekabeko isurketarik gertatuz gero jaso ahal izateko.



b) Ibilgailuak behar bezalako garbitasun-egoeran eduki behar dira.

C) II. multzoko hondakin sanitarioak poltsatan bildu badira zentro barruan, poltsa horiek ontzi zurrun eta estankotan egokitu beharko dira zentroz kanpoko garraioa egin aurretik, eta hondakin biokutsatuak badira, gainera, ontzien etiketan *bio-arriskua* adierazteko piktograma jarri beharko da (Dekretu honen II. eranskinean dagoena).

2.– Garraio-ibilgailuetan edo transferentziaguneetan biltegitratzea.

a) Hondakin sanitario horiek transferentziaguneetara edo tratamendu-instalazioetara eramatean, gehenez ere 24 orduz eduki ahalko dira biltegitratuta garraio-ibilgailuan.

b) Hondakina zentro ekoizlean jasotzen denetik tratatzen den arte (balorizatu edo deuseztatu), gehenez ere astebete igaroko da. Dena den, epe hori 2 astera luzatu ahalko da, baldin eta biltegitratzeko instalazioetan hozte-sistema egokiak erabiltzen badituzte eta tenperatura 4° C-tik beherakoa izango dela berma badezakete. Eta edonola ere, II.c multzoko hondakinak (agente bizi motelduak dituzten txertoak) eta II.e multzokoak (hondakin zorrotz edo ziztakariak) 6hilabetez eduki ahalko dira biltegitratuta, nahiz eta hozte-sistemarik ez izan.

c) Biltegitratzeko instalazio guztiek behar bezala seinaleztatuta eta aireztatuta egon behar dute, suteetatik babesteko mekanismo araupekoak izango dituzte, eta baimena duten pertsonak soilik sartu ahalko dira.

3.– Tratamendua.

a) Hondakin sanitario espezifikoak (II. multzokoak, alegia) tratatu aurretik birrindu egin behar badira, horretarako baimena emateko ezinbesteko baldintza izango da lan horiek egin bitartean hondakinen estankotasuna eta erabateko konfinamendua guztiz bermatuta egotea, mikroorganismorik batere atera ez dadin inondik.

b) Dekretu honen 12. artikuluan ezarritakoa deusetan eragotzi gabe, II.multzoko hondakin sanitarioak hiru prozedura hauetako baten bidez tratatu beharko dira: errausketa bidez, desinfekzioko edo esterilizazioko sistemen bidez, edo bestela, hondakinak deuseztatuz, betiere erabat bermatzen bada, mikroorganismo patogeno guztiak suntsituz, infekzio-arriskurik batere ez dagoela.

12. artikulua.– Creutzfeldt-Jakoben gaixotasunak eta prioiek eragindako beste gaixotasun batzuek kutsatutako hondakinak. Berariazko baldintzak.

1.– Hau da tratamendu baimendu bakarria Creutzfeldt-Jakoben gaixotasuna eta prioiek eragindako beste gaixotasun batzuk sortzen dituzten agenteek kutsatutako hondakinak kudeatzeko: errausketa.

2.– Hondakin-mota hori beste sistema baten bidez tratatzeko, ezinbestekoa izango da esku-mena duten osasun-arloko agintaritzak eta ingurumen-arloko organoak balidazioa ematea.

13. artikulua.– Errausketa bidezko tratamendua. Berariazko baldintzak.

1.– II. multzoko hondakinak errausketa bidez tratatzekotan, instalazioek hondakin arriskutsu horiek errausteko baimena izan beharko dute, eta instalazioa ustiatzen duten langileak ere baimendunak izango dira.

2.– Instalazio horiek bete beharreko funtzionamendu- eta kontrol-baldintzak eta mugako isurtze-balioak hemen ezarrita daude: urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan, zeinak, industriako isurpenen Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol

integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen baitu. Aplikatzeko diren gainerako arauak ere bete beharko dituzte.

14. artikulua.– Autoklabe bidezko tratamendua. Berariazko baldintzak.

1.– Hondakin sanitario espezifikoak (II. multzokoak) autoklabe bidez tratatzeko (presiopeko ur-lurrunaren bidez esterilizatzeko, alegia), baldintza tekniko hauek bete behar dira:

a) Esterilizazioari dagokionez:

- 1) Bakterioen, mikobakterioen, onddoen eta onddo-esporen forma begetatibo oro deuseztatzea.
- 2) Birusak deuseztatzea.
- 3) *Bacillus anthracis* bakterioaren esporak deuseztatzea.

b) Funtzionamenduari dagokionez:

1) Oro har, fabrikatzailearen espezifikazio teknikoei jarraitu behar zaie, autoklabearen funtzionamendu egokia, eta, beraz, autoklabean sartutako hondakinen erabateko esterilizazioa ziurtatzearen.

2) Autoklabeari adierazle kimiko kalorimetroko bat atxikiko zaio esterilizazio-ziklo bakoitzean, kanpotik begi hutsez ikusiz ere tratamendua behar bezala egin dela egiaztatzeko.

3) Gutxienez hilabetean behin analisi mikrobiologiko bat egingo da, esterilizazio-baldintzak hondakin-masa guztian betetzen direla egiaztatzeko. Horretarako, *Geobacillus stearothermophilus* bakterioa erabiliko da, edo bestela, erresistentzia berbera duen beste mikroorganismoren bat, ur-lurrunaren bidezko esterilizazio fisikoko prozesuen eraginkortasuna erakusteko adierazle gisa nazioartean onartua.

4) Funtzionamenduko protokolo bat zehaztuko da, eta protokolo horretan, alderdi hauek erregistratuko dira: kalibratzeko prozesuak, mantentze-lanak, esterilizazioko ziklo bakoitzean izandako funtzionamendu-parametroen kontrola (presioa, tenperatura, denbora eta adierazle kalorimetrokoa), hilean behingo kontrol mikrobiologikokoak, eta autoklabea oker ibili denetan egindakoak (hondakin tratatuaren/tratatu gabearen trazabilitatea).

5) Autokontrolaren funtzionamendu-protokoloaren barruan egindako erregistro guztiak gutxienez 3 urtez gorde behar dira, Administrazioak nahi duenean eskura ditzan.

6) Nolanahi ere, 18.3 artikuluko baimenak barne hartuko ditu esterilizazio-instalazioaren eta -prozesuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko irizten zaien funtzionamendu-baldintzak guztiak. Eta bestalde, kudeatzaileak proposatutako protokoloak eta erregistroak ere aldarazi edo osatu ahalko dira.

2.– Hondakinen azken destinoa zabortegea bada, birrindu egin behar dira, autoklabe bidez tratatu ondoren. Kudeatzaileak betebeharrak horretatik salbuetsi ahalko dira, beren baimenaren esparruan hala eskatzen badute, baldin eta tratamendua egin ondoren hondakin-masa desitxuratuta gertatzen bada eta, beraz, arrisku psikoemozionalik ez badakar.

3.– II. multzoko hondakinak, Dekretu honetan ezarritako baldintzetan esterilizatuak izan ondoren, eta, beraz, infekzio-arriskurik ez dakartenean, hondakin sanitario ez-espezifikotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, eta hondakin-mota horiei dagokien moduan kudeatuko dira.

15. artikulua.– Hondakin sanitario ez-biologikoen eta horrelakoak dituzten nahasteen kudeaketa. III.multzoa.

1.– Garraiatzea.

a) III. multzoko hondakin sanitarioen zentroz kanpoko kudeaketarako, honako arau hauek begiratu behar dira, eta horietan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete: otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretua, gai arriskutsuak errepidez garraiatzeko eragiketak arautu baititu; gainerako araudi sektorial aplikagarria, eta, batez ere, Dekretu honetako 11. artikuluan II. multzoko hondakinei buruz ezarritakotik aplikagarri zaiona.

b) III. multzoko hondakinak garraiatu eta biltegitzeko ontziak behar bezala etiketatu behar dira, zer hondakin-mota duten.

2.– Garraio-ibilgailuetan edo transferentziaguneetan biltegitzea.

a) Hondakin sanitario horiek transferentziaguneetara edo tratamendu-instalazioetara eramatean, gehienez ere 24 orduz eduki ahalko dira biltegituta garraio-ibilgailuan.

b) III.a) multzoko hondakinei dagokienez (botika zitotoxikoen eta zitostatikoen hondakinak, alegia), zentro ekoizlean jasotzen direnetik tratatzen diren arteko denbora, gehienez ere, 6 hilabete izango da.

c) III.b) multzoko hondakinei dagokienez (botika baztertuak, alegia), zentro ekoizlean jasotzen direnetik tratatzen diren arteko denbora, gehienez ere, urtebete izango da.

d) III.c) multzoko hondakinei dagokienez (kontserbatzearren formoletan sartutako anatomia-hondakinak, alegia), zentro ekoizlean jasotzen direnetik tratatzen diren arteko denbora, gehienez ere, 6 hilabete izango da.

e) III.d) multzoko hondakinei dagokienez (beste hondakin batzuk, II. eta III. multzoko hondakinen nahasteak, alegia), ingurumen-organoak erabakiko du biltegitzeko gehienezko epea, kontuan hartuta nahastearen osagaiak eta haien arriskua. Epe hori inoiz ez da izango 6 hilabete baino gehiago.

3.– Tratamendua.

a) III. a) multzoko hondakinak –botika zitotoxiko eta zitostatikoa–, III.b) multzokoak –botika baztertua– eta III.c) multzokoak –kontserbatzearren formoletan edo beste gai kimiko batean sartutako anatomia-hondakinak– errausketa bidez tratatu behar dira. Errausketarako, Dekretu honen 13. artikuluan II. multzoko hondakinei ezarritako baldintza berberak bete behar dira.

b) Dekretu honen 3.3.d) artikuluan aurreikusitako hondakinak badira (II. eta III. multzoetako hondakinak erabiliz egindako nahasteak, alegia), nahastea osatzen duten hondakinen ezaugarri arriskutsuak erabat suntsituko direla bermatzeko moduko tratamendu bat erabiliko da.

16. artikulua.– Beste tratamendu batzuk.

Dekretu honetan zehaztutako tratamendu-sistemez bestelako guztiek eskumena duten ingurumen-organoaren eta osasun-arloko agintaritzaren aurretiazko balidazioa behar dute, hargatki galarazi gabe 18. artikuluan jasotako betebeharrak betetzea eta 20 artikuluan ezarritako baimenak lortzea.

## IV. KAPITULUA

## JARDUERAREN ANTOLAKETA

17. artikulua.– hondakin sanitarioen ekoizleen betebeharrak.

1.– Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. eta 18. artikuluetan ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko dituzte hondakin sanitarioen ekoizleek.

2.– Hondakin sanitarioen ekoizleek beren establezimenduetan sartzen utzi behar diete osasun- nahiz ingurumen-arloko agintariei, eta eman egin behar diete haiek hondakin sanitarioei buruz eskatutako dokumentazio guztia.

3.– Hondakin sanitario arriskutsuen ekoizleak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren aurreko komunikazio-erregimenaren mende daude, aipatu 22/2011 Legearen III. tituluko III. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

18. artikulua. – Hondakin sanitarioen kudeatzaileen betebeharrak.

1.– Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 20. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko dituzte hondakin sanitarioen kudeatzaileek.

2.– Hondakin sanitario arriskutsuen kudeatzaileak, zer jardueratan aritu nahi duten, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren aurreko komunikazio- edo baimen-erregimenaren mende daude, aipatu 22/2011 Legearen III. tituluko III. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

3.– Hondakin sanitarioen kudeatzaileek beren establezimenduetan sartzen utzi behar diete osasun- nahiz ingurumen-arloko agintariei, eta eman egin behar diete haiek hondakin sanitarioei buruz eskatutako dokumentazio guztia.

19. artikulua.– Baimen-, komunikazio-, erregistro-, kontrol- eta ikuskapen-alarretako eskumenak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organuari dagokio baimen hauek ematea: tratamenduaren aurreko jasotzearen esparruko biltegitratzea barne hartuta, eragiketarako instalazioetarakoak, baita instalazio horiek handiagotu, funtsean aldatu edo lekuz aldatzekoak ere.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organuari dagokio instalazio horietan burutu beharreko hondakin-tratamendurako eragiketarako baimenak ematea.

3.– Hondakin sanitarioen tratamendua dela-eta aurreko paragrafoetan aurreikusi diren baimenak, gehienez ere, 8 urterako emango dira, eta automatikoki luzatuko dira bata bestearen ondorengo alditarako.

4.– Baimen horietarako, osasun-arloko agintaritzaren txostena beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren baimen-eskaera eta hari atxikitako dokumentazio guztia bidaliko dizkio, ebazpen-proposamenarekin batera, osasun-arloko agintaritzari, hark dagokion txostena egin dezan, hilabeteko epean egin ere. Epe hori igarota txostenik egin ez bada, aurrera jarraituko du baimen-prozedurak.

5.– Baimen-prozedurari amaiera emateko ebazpena 10 hilabeteko epean emango da, gehienez ere. Epe hori igaro eta ebazpena espresuki jakinarazten ez bada, aurkeztutako eskariari ezezkoa eman zaiola joko da.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoari dagokio aztertzea baimenaren mende ez dauden hondakin sanitarioen kudeatzaileen komunikazioak, orobat hondakin sanitarioen ekoizlearen komunikazioak, Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 29. artikulua aurreikusitako kasuetan. Jarduerari ekin baino lehen aurkeztuko dira komunikazio horiek.

7.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako baimenak eta komunikazioak Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketaren Erregistroan inskribatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoaren mende baitago. Komunikazio horiek Erregistroan inskribatu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoak osasun-arloko agintaritzari eska diezaiolke komunikazioen edukari buruzko txostena egin dezala.

8.– Osasun-arloko agintaritzak hondakinen zentro barneko kudeaketa kontrolatzeko eta ikuskatzeko lanak egin ahalko ditu, alderdi hauekin lotuta, batik bat: hondakinen manipulazioa, sailkapena, ontziratzea, etiketatzea, egokitzea, bilketa, biltegitratzea eta garraioa, hondakin sanitarioak ekoitzi dituzten zentro, establezimendu eta jardueren barruan. Aurreko guztia, EAeko ingurumen-organismoaren berezko eskumenak deusetan galarazi gabe.

9.– Osasun-arloko agintaritzak aldatuz gero hondakinak bitarteko biltegitik kudeatzera bidali aurretiko biltegitira eramateko epea, bai eta zentro barneko gehienezko biltegitratze-epea ere, horren berri eman beharko dio ingurumen-organismoari.

20. artikulua. – Hondakinen tratamenduaren balidazioa.

1.– Hondakinak tratatzeko sistemak aurretiazko balidazioa behar badu, 12. eta 16. artikuluetan hala jasota dagoelako, eskaera ingurumen-organismoari bidali beharko zaio, eta gero hark espedientearen berri emango dio osasun-arloko agintaritzari.

2.– Hondakinak tratatzeko teknikak balidazioa lortuko badu, ingurumen-organismoaren nahiz osasun-arloko agintaritzaren adostasuna beharko da nahitaez, eta, beraz, ingurumen-organismoaren erabakiaz gain, ezinbestekoa izango da, halaber, osasun-arloko agintaritzaren txosten nahitaezko eta loteslea.

3.– Teknikaren balidazioari buruzko ebazpena emateko epea hamar hilabete izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpena espresuki jakinarazten ez bada, aurkeztutako eskariari ezezkoa eman zaiola joko da.

4.– Hondakinak tratatzeko sistema baten balidazioak ez du indarraldi-mugarik, eta, gainera, balidazio-eskaria egin duenak ez ezik, beste edozeinek erabil dezake sistema hori.

21. artikulua.– Baimenak eta aldeztu aurreko komunikazioak bide elektronikoz izapidetzeko arauak.

1.– Hondakin sanitarioen ekoizle edo kudeatzaileek, Dekretu honetan araututako baimen- eta komunikazio-prozeduren izapidetze administratiboan interesik izanez gero, borondatez eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dute prozedura horietako edozein izapide bide elektronikoak erabilita.

2.– Prozedura horiei dagokien prozedura-erregulazio espezifikoak deusetan galarazi gabe, arau hauek hartuko dira kontuan izapidetze elektronikoari buruzko alderdiak erregulatzeko: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio elektronikoari buruzkoa, eta 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde

autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa, hargatik galaz gabe aurretik aipatutako arau horiek garatu, aldatu edo ordezteko arauak.

## V. KAPITULUA

### ZEHAPEN-ARAUBIDEA

22. artikulua.– Arau-haustekak eta zehapenak.

1.– Dekretu honetan ezarritako araurik hautsiz gero, administrazio-zehapenak jarri ahal izango dira, arau hauek aintzat hartuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen VI. tituluko bigarren kapitulua; Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen V. tituluko III. eta IV. kapituluak, eta Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen VII. tituluko II. kapitulua. Nolanahi ere, dagokion administrazio-espedienteak izapidetu beharko da zehapena ezarri aurretik.

2.– Zehapen-prozedurari dagokionez, arau hauek hartuko dira kontuan: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zehapen Ahalmenari buruzkoa; eta aplikagarri gerta daitekeen gainerako araudian xedatutakoa.

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Egoera epidemiologikoak hala eskatuz gero, Dekretu honetako I. eranskinetako gaixotasun-zerrenda aldatu ahalko da, Osasuneko sailburuaren agindu baten bidez.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 76/2002 Dekretua, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena, bai eta dekretu honen kontra doazen maila bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak ere.

### AZKEN XEDAPENETARIK LEHENENGOA

Dekretu honetan xedatzen ez diren prozedurazko kontu guztietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

### AZKEN XEDAPENETARIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko martxoaren 3an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,  
ANA OREGI BASTARRIKA.

2015eko martxoaren 9a, astelehena

## I. ERANSKINA, MARTXOAREN 3KO 21/2015 DEKRETUARENA

## ZERRENDA, I. ERANSKIN HONETAKO GAIXOTASUN INFEKZIOSOREN BAT DUTEN PAZIENTEEKIN KONTAKTUAN EGOTEAGATIK SORTUTAKO HONDAKIN INFEKZIOSOENA (II A MULTZOA)

GAIXOTASUNA		HONDAKINA
1.– Krimea-Kongoko sukar hemorragikoa.		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
2.– Lassako sukarra.		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
3.– Marburga.		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
4.– Ebola.		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
5.– Argentinako sukar hemorragikoa (Junin).		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
6.– Boliviako sukar hemorragikoa (Machupo).		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
7.– Konplexu entzefalitikoa, artropodo bektoreek (arbobirusek) transmititutakoa: Absettarow, Hanzalova, Hypr, Kumlinge, <i>Kiasanur Forest Disease</i> , Omskeko sukar hemorragikoa, <i>Russian spring-summer encephalitis</i> .		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
8.– <i>Herpes virus simiae</i> (Monkey B virus).		Kontaktuan egondako hondakin guztiak.
9.– Amorrua.		Listua, arnas-jariakinak
10.– Izurria.	Bubonikoa:	Jariakin zornetsuak.
	Pneumonikoa:	Arnas jariakinak
11.– Antraxa ( <i>Bacillus anthracis</i> ).	Larruazaleko antraxa:	Larruazal-jariakinak
	Inhalazioagatiko antraxa:	Arnas jariakinak
12.– Difteria.		Arnas jariakinak Zauri infektatuetako jariakinak
13.– Tularemia.	Biriketakoa:	Arnas jariakinak
	Beste aurkezpen-mota batzuk:	Odola, eta larruazaleko lesioetako, gongoiletako eta konjuntiba-zakuko jariakinak
14.– Baztanga (desagerrarazia).		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
15.– Poliomielitisa.		Goroziak, arnas jariakinak.
16.– Kolera.		Goroziak eta oka.
17.– Tuberkulosi aktiboa.		Arnas jariakinak
18.– Q sukarra.		Arnas jariakinak eta odola.
19.– B hepatitisa.		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak.
20.– C hepatitisa.		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak.
21.– Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB)		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak.
22.– Bruzelosia.		Jariakin zornetsuak.
23.– Creutzfeldt-Jakob edo prioiek eragindako beste batzuk.		Egiaz infekzio-gaitasuna duten ehunak.

Eranskin honetako gaixotasun zoonotikoei dagokienez, zabaldu egin beharko da animalia-hondakin sanitario infekziosoen zerrenda, infekzioa eragin dezakeen hondakin oro har dadin kontuan.

II. ERANSKINA, MARTXOAREN 3KO 21/2015 DEKRETUARENA

BIO-ARRISKUAREN PIKTOGRAMA



BIOARRISKUA  
*BIO-RIESGO*



## III. ERANSKINA, MARTXOAREN 3KO 21/2015 DEKRETUARENA

## HONDAKIN ZITOTOXIKOEN PIKTOGRAMA

